

# Xabier Olarrarekin solasean

GOTZON EGIA, FERNANDO REY

*Tolosan (Gipuzkoa) jaioa da, 1953an. Filosofia eta Letretan lizentziatua (Hizkuntza Errromanikoak), euskara eta euskal literaturako irakasle izana da hainbat urtez. Nafarroako Gobernuko itzultzaile da 1988az geroztik.*

*Itzultzaile gehienek ez bezala, literatur itzulpengintzaren bi aldeak ezagutzen ditu Olarrak: alde batetik, hogeni urte egin ditu literatura itzultzen, bere begietako kutuna duen genero beltzeko eleberririk batez ere; bestetik, 1989ko apirilaren 14az geroztik Igela argitaletxea osatzen du, Joseba Urteagarekin eta Jose Manuel Gonzalezekin batera. Olarrak ongi daki, beraz, zer den literatur itzultzaile autodidakta eta hutsetik hasitakoaren ibilbidea, eta ongi ezagutzen ditu, aldi berean, itzulitako literatura argitaratzeak berarekin dituen gazi-gozoak. Zaletasun hutsa lanbide bihurtu izanak nolabaiteko bermea eransten dio, itzultzailetasun finko bat, hogeni urte luzeetan itzuli eta argitaratu dituen orri amaigabeek sendotu dutena.*

**Senez:** Nola izan zen zure itzulpengintzaren hastapena? Jatorriz itzultzaile literarioa zara?

**Xabier Olarra:** Bai, eskolan latinetik egin-dako itzulpen labur haietatik aparte, nire lehen itzulpena *Karteroak beti deitzen du bi aldiz* (*The postman Always Rings Twice*) izan zen; James M. Cain-ena (Elkar 1983), eta hori izan zen nire burutik 1983an otu zitzaidalako. Euskara irakasle nintzen garai hartan, Hernanin, Joseba Urteaga lankide nuela, eta ohartzen nintzen irakaskuntzan sekulako premia zegoela. Ikasleek, aurreko urtean Elgoibarren, esaten zidaten, esate baterako:

«Guri, jarri irakurtzeko Xabier Gereñoko nobelak», eta halakoak. Nik, nire artean: «Demontre, jendeak a zer gustu definituak dituen hemen!». Pentsatu nuen bazirela orduan haiek baino nobela hobek, nik genero horretakoak erdaraz franko irakurtzen bainituen, eta besterik gabe —ez nuke esango zehazki nola ere— bururatu zitzaidan eleberririk hura euskaratzea. Egia esan, irakurri berria izateaz gainera, garaitsuan estreinatu zuten zineman Jessica Lang-ek eta Jack Nicholson-ek egin zuten bertsio berria... Orduan Bordelen nintzen, tesia egiteko asmoz.

**Senez:** *Bordeleko hura zer izan zen, eten bat zure irakasle jardunean?*

**XO:** Bai, Eusko Jaurlaritzaren beka bat izan nuen Jon Miranderen poesiari buruzko ikerketa bat egiteko urtebetez. Institutuko lana utzita, hara joan nintzen kemenez betetik. Denboraren erdia, Miranderen poesiak irakurri eta arakatzen ematen nuen, eta beste erdia, berriz, Cain-en eleberria itzultzen; askoz atseginagoa gertatu zitzaidan, noski, itzulpen lana bestea baino. Handik itzuli nintzenez, itzulpena osorik amaituta galtzarpean nuela, Elkar argitaletxera joan nintzen zuzenean, eta halaxe esan nien: «Hemen daukazue, nahi baduzue argitaratu, zuek ikusi». Artean ez nuen pentsatu ere egiten huraxe izango nuenik noizbait lanbide; nik ikusten nuen irakaskuntzan behar zela halako testurik, jendeak eskatu ere halakoak eskatzen zituela. Izan ere, urte haietan, *Egunero hasten delako*, Txillardegiren nobelak eta beste ezer asko gehiago ez zegoen, gazte jendeari emateko modukorik.

Itzulpena argitaratu eta arrakasta handi samarra izan zuen, niri hala esan zidaten behintzat. Saldu ere, ederki saldu zen. Aurretik, Elkar-en literatura sailean bi itzulpen besterik ez ziren argitaratuak, oso oker ez banago: Cesare Pavese-ren *Burkidea*, Xabier Mendiguren Bereziartuk euskaratua, eta Maupassant-en *Oilagorraren ipuinak*, Felipe Juaristik itzulia. Urte haietan ez zen ia deus ere argitaratzen helduentzako itzulpenetan. Orduan, *Karteroak beti deitzen du bi aldiz* liburuaren arrakasta ikusirik, neronek planteatu nion Elkar argitaletxeari hurrengoan zein liburu itzuli nahi nuen, eta hura izan zen *1280 arima* (*Pop. 1280*), Jim Thompson-ena (Elkar 1986), nobela beltz indartsu bat.

Horrekin bateratsu, Eusko Jaurlaritzari beka bat eskatu nion W. Faulkner-en *Santutegia* (*Sanctuary*) euskaratzeko. Oraindik hasi gabea zen Literatura Unibertsaleko bilduma, eta Jaurlaritzak beka moduko batzuk eskaini zituen literatur itzulpenetan saiatu nahi zutenarentzat. Horrela, beka haren bitartez lan serioago bati heltzeko aukera eta denbora izan nuen, nahiz irakaskuntzako lana uzteko modurik ez zidan ematen bekak, noski. Bakarririk, itzulpena bukatzeko bi hilabete hartu nituen, eta Ibizara joan nintzen nire paper guztiekin. Kafetegi batean egiten nuen lana, hantxe bukatu nuen itzulpena.

Horrelakoxea izan zen, beraz, nire itzulpengintzaren hasiera, inolaz ere hartara modu profesionalean dedikatzekeo batera asmorik gabea.

**Senez:** *Zergatik nobela beltza? Zerk eraman zintuen ordu arte euskaraz batera jorratu gabeko nobela beltzaren bide hori hartzera?*

**XO:** Alde batetik, nik halako nobela asko irakurtzen nuen, eta ikusten nuen euskal irakurleen sektore handi batentzat erraz samarrak izan zitezkeela genero horretako liburuak. Hasieratik eutsi izan diot bide horri, nahiz geroztik gauzak arrunt aldatu ziren niretzat: Iruñera etorri nintzen, lanbide gisa itzultzaile bidea hartu nuen, eta horrekin batera, nire itzulpengintza lana modu sistematikoxeagoan egiteko asmoa sortu genuen hiru tolosar gazte samar eta ausart samarrek, Joseba Urteaga, Josema Gonzalez eta hirurok. Huraxe izan zen Igela argitaletxearen sorrera.

**Senez:** *Nobela beltza da, zalantza gabe, zure begietako kutuna, baina nobela beltza ez al da kategoria orokorregia. Asko hitz egin da*

«hard-boiled» edo sentimendu gabeko estiloaz, estilo gogorraz, baina nobela beltza ez dago osorik etiketa horretan sartzerik, ezta? Itxura batean, idazkeraren eta estiloaren ikuspegiak alde handi samarra egin daiteke Faulkner edo Truman Capote-renetik Cain edo Hemingway-renera...

XO: Bai, genero horretan oso gauza desberdinak daude. Guillermo Cabrera Infante batek esango dizu Hammett eta bere eskola guztia Hemingway-ren ondorioa dela, Hemingway-ren ipuin jakin batena, *The Killers* hain zuzen ere. Jarraitzaile asko izan zituen, egia da, eta ildo narratibo horrek sentimendu gabeko edo gogortasunerako joera, noski. Hala ere, idazle bakoitzak bere ukitua du, ez dago dena zulo berean sartzerik. Esate baterako, Patricia Highsmith nobela beltzaren multzoan sartzen dute gehienetan, baina berak ez zuen izendapen hori onartzen, eta ihes egin nahi izaten zion sailkapen estu horri.

Hor badago altxor handi bat, oso zabala, eta euskarara itzultzeko aukera handia ematen diguna, denetarik baitago. Literaturaren genero honek harreman handia izan zuen zinemarekin, ez dugu aiantzi behar, eta idazle asko bietarako idazten aritzen ziren askotan: Cain-ek edo Thompson-ek lan asko egin zuten zinema estudioetarako gidoiak idazten, ez beti norberaren obretan oinarrituta, askotan besteren eleberriak egokitzen zituzten. Dena dela, literatura beltzak boladak izan ditu beti; 1980ko urte haietan, esate baterako, oso boladan izan ziren nobela beltzak. Bruguera argitaletxeak astero-astero ateratzen zuten izenburu bat, eta ni irakurle zintzo horietako bat nintzen, eserialdi batean edo bitan eleberria irensten nuen ia beti. Orri haiek irakurtzen aritzen nintzenean, askotan pentsatzen nuen neure artean «Nik, ahal banu,

beste horrenbeste egingo nuke: taldetxo bat elkartu, eta astero halako izenburu bat kale-ratu euskaraz, guk erdaraz irakurri behar izan ditugun eleberri guztiak euskaraz irakurtzeko aukera izan dezaten euskal irakurleek». Garai hartan, baina, nire burutazio txoroak amets hutsak ziren, argitaletxeak ez baitzuden prest halakorik egiteko, eta ziurrenik itzultzaileon aldetik ere muga larriak izango baitziren halako proiektu bati heltzeko, orduan ez zelako, nik uste, behar adina itzultzaile prestaturik izango. Hala ere, gerora ikusi da gauzak pixka bat antolatuz gero, egin daitekeela; ez astero izenburu bat, ezta gutxiagorik ere, baina urtean bi edo hiru ale bai, egin daitezke, zailtasun guztiak gorabehera. Jende gehiagori aukera eman izan balitz, eta antolamendu hobea egon izan balitz, gaur egun literatura beltzaren esparruan ditugun 20 edo 30 izenburuak agian 100 edo gehiago izango ziren. Irakurle kopuruak ere agintzen du, noski, eta beharbada proiektua bide zabalagotik eramaterik ez zegoen, eleberri beltzen irakurle potentzialak asko izan daitezkeelako, baina gero praktikak erakusten du irakurleak ez direla hainbeste.

**Senez:** *Literatura beltzaren eremuan sailkatu izan diren idazleen ikuspegiak ere aski desberdinak izan dira. Esate baterako, hona zer idatzi zion behin Raymond Chandler-ek bere editoreari, James M. Cain-en inguruan: «James Cain? Uff! Ukitzen duen guztiari ahari usaina eransten dio. Benetan gorroto dut halako idazle generoa, faux-naïf bat da, Proust bat lan-jantzi koipeztuaz, ume muturzikin bat klarion puskat bat eskuetan duela arbelaren aurrean eta inor begira ez balu bezala. Halako jendea literaturaren hondakina da, ez gauza zikinez idazten dutelako, era zikinean idazten dutelako baizik».*

XO: Bai, jakina da, Chandler-ek bazuen literaturaren ideia oso berezia... Gaztetan poeta izana zen, eta idazle «landu» bat zen. Cain, berriz, beti bi maisulanen egile gisa aipatzen da, *Karteroak beti deitzen du bi aldiz* eta *Galbidea*. Tira, maisulanak genero horren barruan, noski, Ross MacDonald-ek esaten zuen Cain-en bi obra horiek maisulanak zirela... Nik nahiago dut Chandler, zailantzarik gabe, baina edozeinek ere esango dizu haren detektibe super-etiko hori ezinezkoa dela, perfektuegia dela, askorentzat interes gutxikoa.

Espanian, Xavier Comak oso ongi aztertu du nobela beltzaren gaia, eta esaten du nobela beltzaren alderantzizko joera ere badagoela, Mickey Spillane-ren obretan esate baterako, baina hala ere betidanik literatura beltzaren barruan sartu izan da. Niri, egia esan behar badut, ez zait gehiegi interesatzen, nahiz Gotzon Garate-ri askotan entzun izan diodan «Hemen duzue genero beltzean gehien saltzen duen egilea, Mickey Spillane!». Bai, beharbada bera da gehien saltzen duena, oso ondo, nobela beltzaren etiketarekin, baina horrek ez du esan nahi literatura beltza denik, literatura zikina beharbada bai baina beltza ez, nire ustez.

**Senez:** Gauza bitxia: urte batzuk geroago, 1944an, Raymond Chandler-ek berak idatzi zuen *Double Indemnity*, Cain-en liburu zinemara eramateko gidoia, Billy Wilder zuzendariarekin batera. Diotenez, Wilder-ek arazo asko izan zituen Chandler-ekin: gidoi bat idazteko ikuspegi oso berezia zeukan, bere aburuz. Chandler-ek idatzitako lehen zirriborroa irakurri ostean, Wilder-ek hala esan zion: «Hau kaka bat da, Chandler jauna». Idazleak bere hartan jarraitu zuen, pipa erretzen, Hollywood gorroto zuela ezkutatu gabe. Hala ere, Cain-ek fil-

ma ikusi zuenean esan zuen: «Nire liburu baretetik abiatuta egindako film bakarra da, badi-tuenak nik pentsatuak izatea nahiago nituzkeen gauzak».

Litekeena da, baina hasieran, 50 bat orri-ekin estudioetara azaldu zenean Chandler, Billy Wilder-ek muturrera bota omen zizkion, esanez hura ez zegoela inola ere filmatzerik. Ez dakit gerora gidoia idatzi ote zuen azkenik, baina halako gorabeherak maiz gertatu ziren literatura beltzaren eremuan zinemarako ere idazten zuten egileen artean.

**Senez:** Zinemak askotan literaturak baino indar handiagoa izaten du, ez bakarrik istorioak kontatzerakoan, baizik izatasun literarioko pertsonaiak sortzerakoan ere. Adibidez, Maltako belatza ez daiteke uler Dashiell Hammett-ik gabe, baina ezta ere Humphrey Bogart-en irudirik gabe. Zure kasuan, zein eragin izan zuen zinemak literatura beltzarekiko zaletasunean?

Nire lehen itzulpen lana, esan dudana bezala, *Karteroak beti deitzen du bi aldiz* izan zen. Irakurri berria nuen eleberria, zineman Jack Nicholson eta Jessica Lang-eren bertsioa plazaratu zenean. Literatura beltza gozame-nez irakurri izan dudana bezala, zinema beltza ere ikusi izan dut, aukera izan dudana bakoitzean; orain gutxixeago, beharbada.

**Senez:** Zuk lehenetarik euskaratu zenuen 1280 arima, Jim Thompson-ena, Bertrand Tavernier-ek eraman zuen pantaila handira, *Coup de torchon* izenburuaz, 1981ean (Phillipe Noiret-ekin eta Isabelle Huppert-ekin). Estatu Batuetako hegoaldearen ordeztu, Tavernier-ek gerra aurreko Afrika kolonialean kokatu zuen. Bide batez esanda, gainera, diotenez liburu hori aurreko Thompson-ek idatzitako *The Killer Inside Me* nobelaren remake bat izan omen zen...

Filma ez dago gaizki, baina Afrikara eramatea gauzak urrun samar eramatea da. Jakina, errealismo apur bat eman nahi bazion filmari, ez zuen beste biderik, Bigarren Mundu Gerraren aurrean frantsesen mendeko Afrikako giro horretara eramatea... Bestela, hain nobela zentzugabe eta eroa ezin zen beste inon kokatu. Literatura beltzean «hezitako» batentzat, dena dela, grazia handikoa da istorioa halako leku bitxietan ikustea.

Dena dela, egia da *The Killer Inside Me* nobela gogorra, eta irakurleen aldetik arrakasta ikaragarrikoa, oso obra seinalatutzat hartzen dela, batez ere garai hartan Thompson-ek zuen argitaratzailearen aldetik, baina Thompson-en obren inguruan sekulako nahaste-borrastea dagoela esango nuke. Bera nahiko eleberri serioak hasi zen idazten, 1942 inguruan, eta halako batean erabaki zuen bide horrek ez zuela irtenbiderik, eta liburua irakurria eta saldua izatekotan, sexua, hilketak eta gisako osagaiak sartu beharra zegoela, kezka sozial «sakonagoak» albo batera utzita. Bide horretan abiatutik, *1280 arima* Thompson-en adierazgarriena dela iruditzen zait. Dena dela, *The Killer Inside Me* obrari ere egokituko zaio noizbait bere euskarazko bertsiola izatea...

**Senez:** Zure itzulpenetan ongi erretrataturik ikusten duzu genero beltzeko idazleek lortu nahi izaten zuten hard-boiled estilo gogor hori?

**XO:** Ni hastapenetik saiatu naiz hizkera zakarra erabiltzen, ikusiz haiek erabiltzen zuten hizkera, esate baterako, britainiar ingelesentzat arrotza zela. Oroitzen naiz, *Karteroak beti deitzen du bi aldiz* itzuli nuenean Bordelen, banuela lagun britainiar ingelesdun bat, eta zalantzak nituenean, pasarte batzuk argitzeko eta abar, galderak egiten

nizkionean, hizkera zakartzat eta kaxkartzat zeukan Cain-ena, adibidez. Askotan berak ere ez zituen gauzak lehenengoan ulertzen, dena argotez eta kaleko esamoldez beterik baitago. Cain-ek berak esaten zuen «mendebaldeko behe mailako jendearen mintzamoldea» erabili nahi izan zuela. Beraz, ni ere horretara jartzen nintzen testuak itzultzerakoan, baina hori ahal nuen heinean egin nezakeen; estilistikoki ere, hizkera kaxkarra baldin bada jatorrizkoan, saiaturiko naiz ni ere kaxkar egiten. Alabaina, lan idatzi batean ezin duzu dena hizkera erabat kontrakzioz josia eman, eta etengabe halako baliabideak erabili. Hasierako zirriborro batean bide horretatik jo nuen, baina gero, nahitaez, txukunxeago eman behar dituzu gauzak.

**Senez:** Cain-ek bere estiloaren defentsa egiten duenean, *Double Indemnity* liburuaren hitzaurrean, honela dio: «Nik ez dut berariazko ahaleginik egiten gordina izateko, sentimendu gabe edo kopetilun, edota leporatu izan zaidan beste edozer izateko. Soilik saiatzen naiz pertsonaiak idatziko lukeen bezala idazten, eta ez dut inoiz ahanzten batez besteko amerikarra, nekazari girokoa, kalekoa, tabernakoa, bulegokoa, baita herri honetako estoldetako ere, hizkera bizi baten jabe dela, nik asma nezakeena baina urrunago doana; ondasun horri atxikiz gero, eraginkortasun izugarria lortuko dut ahalegin oso txiki baten truke». Cain-en hiru obra euskaratu dituzun itzultzaile gisa, bat egiten al duzu ikuspegi horrekin? Identifikatzen duzu ikuspegi hori zeure itzulpenetan?

**XO:** Bai, egia da hori. Cain ez zen Kaliforniakoa, baina berak esaten zuen hizkera modu hori, mendebaldekoa, deskubritu zuela hara joan zenean, eta huraxe saiatzen zela islatzen bere obretan. Jakina, hori kontuan hartu behar du itzultzaileak Cain-en elebe-

rriak itzultzerakoan, baina aitortu beharra daukagu euskaraz erregistroak falta ditugula askotan. Saiatzen nintzen, *Karteroak beti deitzen du bi aldiz* itzuli nuenean esate baterako, Tolosako hizkera kaxkar batean esango lirartekeen bezala ematen gauzak, baina azkenean hori dena txukundu egin behar duzu ezinbestean, ezin duzu era sistematiko batean erabili halako baliabiderik. Gainera, nire lehenbiziko itzulpena zela kontuan izanda, orduan *nekie narekin* egiten nuen, noski. Ez da ahan-tzi behar itzulpenari buruz erabat autodidakta izan naizela, beraz beti galdetzen nion neure buruari «Pertsonai hau banintz, nola esango nuke nik hau?», beste iritzirik ez nuen, egia esateko. Egoera horretara jarri eta saiitzen nintzen gauzak egiten, askoz gehiago ere ez.

**Senez:** *Azken boladan egin dituzun itzulpenak aski bereizten dira aurreko nobela beltzaren linea horretatik. Hor dira Sándor Márai eta Oliver Sacks. Literaturara hurbiltzeko bi bizi-pen eta bi ibilbide bereziak, apartak, harrigarriak agian. Lehena, deserriratu malenkonia-tsu bat, emaztea eta seme bakarra galdu ostean bere buruaz beste egin zuena, baina behatzaile ikaragarri bat, Hungariako klase ertainen desintegrazioa letraz irudikatu zuena. Bigarrena, Oliver Sacks, adimen gaitz larriene-kin ohitutako neurologo bat, literatura erabiltzen duena gizakiaren nortasun gaitz mutur-renekoak aztertzeko tresnatzat. Behin idatzi zuen: «Gaixo neurologikoak, lurralde pentsaezinetara doazen bidaiariak dira». Antropo- logo bat Marten halako saioen lekukoa da. Zergatik hautu horiek?*

**XO:** Bai, egia esan Sándor Márai-ren li- buruak ez du zer ikusirik genero beltzarekin. Bera aristokrata bat zen, hara eta hona ibili- takoa, Hungariak XX. mendean izan zituen gorabehera politikoen norabideaz at, eta

azkenean Ameriketara joana. Hala ere, *A gyer- tiak csonkig égnek (Azken hitzordua)* 1942ko eleberria da, ez da atzo goizekoa... Kontua da genero beltzaz at, literaturan gauza asko dagoela, eta nik parte hartzen dudana Igel- a argitaletxearen esparrua zertxobait zabaltze- ko asmotan egina dela hautu hori. Garbi dago orain arte Igelaren ildoan nobela beltzarena izan dela, hamabost bat izenburu kaleratu ditugu genero horretan, baina uste dugu hortik zertxobait ere atera behar dugula, gure eremua hedatu, bestela irakurlearen aurrean markatuegi gelditzeko arriskuan egon gai- tetzke. Alde batetik arrazoi hori dago, eta Sán- dor Márai-ren kasuan, eleberri horrek irakur- le mota zabalagoa izan dezake, berezko me- rezimendu ugarietz gain. Aurten, ziurrenik, Marai-ren beste eleberri bat kaleratuko dugu, *Eszterren ondarea* izenburua izango duena. Bide horri eusteko asmotan gara, lehendik ere Alessandro Baricco-rekin egin genuen bezala. Beharbada, ez dira guretzat obra ku- tunenak, baina irakurle sektore batentzat garrantzizkoak izan daitezkeela ikusirik, uste dugu ahalegintxo bat egin genezakeela ha- lako gauzak ere euskaraz egon daitezen.

Oliver Sacks-en itzulpena beste kontu bat da: enkarguz egindako lana da. Literaturatik franko alden du eta dibulgazio zientifikoaren esparruan dago, baina esparru horretan ba- ditu gauza interesgarriak. Nire borondatez, ziurrenik ez nuen inoiz aukeratuko, baina batzuetan komeni da halako esparru guztiz desberdinetara joatea.

**Senez:** *Igela argitaletxeak badu bere linea, bai- na linea horretan zer izan da erabakitzaile? Abentura horretan ari zareten itzultzaileen za- letasun hutsa izan da? Izan duzue beste hel- bururik, euskal argitaletxeen artean egiten ez zen lan mota bat ematekoa, adibidez?*

**XO:** Igelan lanean hasi ginenean, gure printzipio bakarra izan zen guk gogoko edo nahi duguna argitaratuko dugula. Non aukeratu badagoenez sobera ere, eta konpetentzia hain gutxi, beste argitaletxeetan ez baitago itzulpena argitaratzeko proiektu sendorik, nahi duzun guztia daukazu aukeran. Beraz, gure *linea* horixe da: aurten halako eta halakoak egingo ditugu, hurrena honetara edo hartara joko dugu, eta horrela. Hasieran, zerrenda luze bat moldatu genuen, hori egia da, baina urtean-urtean zerrenda hori osatu egiten dugu, eta gure aukeren arabera itzultzaileak bilatzen ditugu, gauzak edozein modutara ezin baitira egin, noski. Hori baino linea edo azterketa sakonagorik ez daukagu, egia esan.

Egin nahiko genituzkeen liburuen zerrenda egina dago, esan nahi dut hori errazena dela, baina gero liburu bakoitzari bere itzultzailea bilatu behar zaio. Esate baterako, nik oso pozik jarriko nuke baten bat *Belle du seigneur* (Alber Cohen-ena) euskaratzen, baina urte pare bat eman behar baldin badu horretan, nola ordaintzen ahal zaio bi urteko lana liburu bakar bat argitaratzeko? Egia esan behar badut, halako ahalegin ikaragarriak egin izan dira, Matias Mujikak egin zuen bezala, baina halako lana ordainezina da. Jakina, gure argitaletxean lagun arteko tratuak izaten dira gehienak, eta lagun arteko ordainsaria jaso ohi dute itzultzaileek, bestela ezin izango genuke aurrera egin.

**Senez:** Beraz, jarraitzen du Igela argitaletxearen izenak izaten sigla bat, «Irabazi Gutxi Eta Lan Askok»?

**XO:** Siglaren lehenengo zatiaz ez dut zalantzarik egiten: irabazi gutxi, edo batere ez. Bigarren zatia, lan asko alegia, bada, baina atse-

ginez egiten dugunez, badirudi hala arinago dela. Gurea bezalako argitaletxe batean, nolahi dela ere, zer egina ez da behin ere eskas. Hasieran, gure erromantizismo lainoari esker, 2000 ale kaleratzen genituen liburu bakoitzetik, orain ordea 1000 besterik ez. Izenburu batzuk agortuak dira, hori ere egia da, baina gure irakurleen beharrak ongi asezten ditugu mila ale argitaratuta. Dena dela, badirudi gaur egun argitaletxe handien joera ere hori dela: aldiro ale gutxi kaleratzea, non eta ez den alde zurririk arrakasta editorial garbi bat izatera deitutako liburu bat. Igelan, behintzat, liburu bakoitzetik mila ale argitaratuta, gure martxa tikian aurrera egiten ahal dugu. Urtea zulo handirik gabe amaitzea lortzen badugu, aski da guretzat, egia esan, eta egoera horrek ez du aldatzeko itxuririk.

**Senez:** Garai batean kritikariren batek idatzi zuen –ezin jakin gorespen ala kritika asmoz-Igelaren liburuen edukia eta ezaugarri materialak (paper xumea, sakelako formatua...) oso bat zetozela.

**XO:** Hasieran pentsatu genuen irakurri eta botatzeko liburuak izango zirela, ez etxean artaz gordetzen diren liburu eder horietakoak, ezta gutxiagorik ere. Ni ikusia nago Bordelen edo Parisen, nobela beltzak bigarren eskuko salmentan, ugari gainera. Jakina, hori Bordelen edo Parisen gerta daiteke, baina hemen ez dago halako ohiturarik. Igelaren sailak hala izan nahi zuen, sakelan eramateko liburua, liburu xumea, pretentsiorik gabea. Horrez gain, genero beltzetik at diren izenburu batzuk txukunxeago ateratzen saiatzen gara.

**Senez:** Literatura Unibertsaleko Bildumarako Ambrose Bierce-ren *The Devil's Dictionary* egin

zenuen, hori ere liburu berezia, literaturaren ikusmolde berezia duena, aforismoen eta kritika sozial edo politikoaren mugan.

XO: Nik liburu hori asko maite nuen, Literatura Unibertsaleko zerrendetan agertu aurretik. Beraz, han ikusi nuenean, nire eskaintza aurkeztu nuen, noski. Liburua hiztegi moduan dago antolatua, izan ere, Bierce-k zatika idatzi zuen, astekari batean agertzeko. Egia da literatura, kritika sozial edo politiko, literatur kritika, bere garaiko gertakarien iruzkinak, poemak, eta beste gauza asko daudela liburu horretan. Ni mozolo samarra izan nintzen, egia esan, itzulpena egiteko eskaintza aurkeztu nuenean. Izan ere, letra molde txiki-txikian egindako edizio bat nuen, eta iruditu zitzaidan ez zela lan ikaragarria izango. Hasi bezain laster ohartu nintzen, baina, nire bizitzako atakarik handienean sartua nintzela: libururik baldin bada hitz joko z Josia, gainera haietako asko eta asko bertsoan eginak, horixe Bierce-ren *Deabruaren hiztegia* da, zalantzarik gabe. Itzultzaileari, beraz, oztopo ikaragarriak jartzen dizkio. Itzulpena egiteko lehen jorraldian, esamolde, hitz joko edo soneto mordo baten aurrean «itzulezina» jarri eta aurrera jarraitu nuen, ez bainuen biderik ikusten haiek denak euskaraz txukun emateko. Gero, hasi nintzen gaztelaniazko edizioetan begiratzen, ea zer egin zuten haiekin, eta ohartu nintzen gehien-gehienetan kendu egiten dituztela halako pasarte *zailak*, besterik gabe kendu eta kito! Frantsesezko edizioak ez ditu hainbeste gauza kentzen, baina, esate baterako, bertsoan zegoena neurri eta errimarik gabe ematen du itzulita. Nik, orduan, neure buruari esan nion: «hau bertsoz egin bada, eta indar pixka bat izango badu, izan dadila euskaraz ere bertsoan».

Sekulako lana jarri nion neure buruari, jakina, sonetoak egin behar direnean, sonetoak egin behar baitira, ez dago beste irtenbiderik. Zer esanik ez, hitz jokoak itzultzea ere lan gaitza da, hor itzulpen-itzulpenik ez baitago, norberaren baratzetik sortu behar dira haien pareko hitz joko berriak, eta beti gelditzen zara zalantzatxo batekin, harrapatuko ote da, ez ote da, ongi emana ote dago, ez ote dago... Erabakia neukan, ordea, liburua osorik ematea euskaraz, eta inoiz egin dudan itzulpen saiorik nekagarriena izan bazen ere, emaitza hor dago. Ez dut esango sekulako itzulpen ona denik nire, baina halako liburu batena izanik, ez dago nolana egin, inondik ere. Argi aitortu nahi dut, dena dela, bertso, soneto eta gauza errimatu guztietan laguntza eskatu niola Juan Garzia adiskideari; eskerrak eman nahi dizkiot lerro hauetatik, liburuan bertan ez baita azaltzen. Bertsoak itzultzeko garaian, nik libertate guztiak hartu nituen, eta hark, berriz, neurri eta eten kontuetan lan zorrotzagoa egin zeukan Shakespeare-ren sonetoak itzuli zituen. Ordurako, baina, nik lana oso aurreratua neukan, eta ezin nuen hango neurketa sistema guztia halako lege zorrotzetara egokitu. Beraz, erdibide batera jo nuen, liburuaren hitzaurrean esaten nuen bezala: irakurle bakoitzak hartu beharko dio pausoa eta pausajea bertso horien irakurketari. Zernahi dela ere, Bierce-rena ez da poema liburu bat funtsean, beraz azkenean pozik gelditu nintzen.

*Deabruaren hiztegia*-rekin ikusi nuen, inoiz baino garbiago, zer alde dagoen irakurri eta itzultzearen artean. Liburu bat erraz irakurtzen duzu, baina hura itzuli behar duzunean ohartzen zara testu haren azpian zer dagoen benetan, eta zer lan eska dezakeen hura itzultzeak.



**Senez:** Zure itzulpen horrek izan zuen aitoren bat. Euskadi Sarietan, 2001eko edizioan, itzulpen onena saritzeko epaimahaiak saria Fantasiatzko ipuinak, Guy de Maupassant-en liburuaz Josu Zabaletak egindako itzulpenari eman ondoren, hauxe utzi zuen idatzita: «Sariarik jasoko ez badu ere, epaimahaiak Xabier Olarra (Tolosa, 1953) jaunak itzulitako lanari aipamen berezi bat egin dio, hain zuzen ere Ambrose Biercek idatzitako The Devil's Dictionary liburuaren itzulpenari. Itzulpen lan horri buruz honako hau azpimarratu nahi du: jatorrizkoaren estilo jostaria, hitz-jokoak, zinismoa eta poesia-lana euskarara ekartzen erakutsi duen trebetasunagatik». Ez da gutxi esatea, saria jasoko ez zuen itzulpenaren gainean...

**XO:** Noski, hori esango zuten obraren zailtasunagatik eta egindako ahaleginagatik. Sariak ez dira ematen soilik itzulpena egiteko emandako ordu kopuruaren arabera edo ahaleginaren arabera. Hori irizpide bat izan daiteke, baina ez bakarria. Dena dela, esan beharra daukat errekonozimendu minimo edo maximo hori ongi eta pozik hartu nuela, besterik gabe.

**Senez:** Literatura Unibertsaleko Bildumaren ehungarren alea argitaratu zaharra ez delarik, egiguzu bildumaren balantze bat. EIZI Eren aldikarian argitaratu behar dugunez elkarriketatu hau, lasai utz ditzakezu albo batera gauza «politikoki zuzenak». Hitz egin lasai.

**XO:** Hor era askotako lanak, esku askotako lanak daude. Bakoitzak bere zaletasunak izango ditu, baina nik esango nuke bildumako izenburu gehienak duintasun handiko itzulpenak direla. Bilduma abiatu zenetik, gainera, iruditzen zait asko aurreratu dela kontrolaren aldetik. Baliorik handiena izan da, nire ustez, literatur itzulpengintzaren inguruan zebilen jende multzo bat atakan

jarri eta lana serio samar egitera behartu duela. Jakina, klasikoekin badakigu zer gertatzen den: liburu batzuk itzuli egin behar direla, nahiz ia inork ez irakurtzeko izango diren.

Bestalde, obren aukera lana ere ez da erraza izaten; badira obra batzuk makina bat aldiz proposatu izan direnak, baina inork hautatu nahi izan ez dituenak. Beste obra batzuk, berriz, nik ez nituzke inoiz hautatuko, eta agian beste batek bestelako iritzia izango du... Azkenera, ez dut uste inork esan dezakeenik Literatura Unibertsaleko Bilduman zabor pila dagoenik.

Alde askotara, bildumaren eraginez itzulzaile multzo eder bat trebatu da literatur itzulpengintzan, merezimendu hori aitortu behar zaio batez ere: ausardia pixka batez eta lotsarik gabe, itzulzaile talde handi bat literaturako testu klasikoen aurrean jarri du.

**Senez:** Zure ustez, Literatura Unibertsaleko Bilduman sortu den itzulpen ibilbide horrek, urteetan eta izenburuetan barrena, eraginik izan du argialetxeen itzulpen politika sendo eta zabal bat ez bada, bederik itzulpenari atentzio pixka bat gehiago egiteko?

**XO:** Horrenbestearinoko eraginik ez nioke nik aitortuko. Beharrezkoa zen esparru bat bete duen heinean, ziurrenik argialetxeek zama hori arinduta ikusi dute, horretan saiatu beharrik ez izate hutsa ez baita gutxi. Ondorioz, itzulpena aintzat hartzeko prest dauden argialetxe apurrek beste era bateko obretara jotzeko aukera izan dute. Jakina, itzulpen oso gutxi argitaratu izan da betidanik, baina horrek ez du zehazki literaturarekin zer ikusirik, diruarekin baizik. Alde baterik, literatura ez da gehiegi saltzen. Bestetik, Literatura Unibertsaleko Bildumak ez du lortu aspaldida-

niko topikoa puskatzerik, hori da, benetako Literatura, horrela letra larriz idatzita, jatorriz idatzitakoa dela, eta itzulpena beti bigarren mailako gauza bat dela. Itzultzaileok badakigu, ongi jakin ere, topiko horrek ez duela funtsik, ez baita literaturaren kalitatean oinarritzen, aurreiritzi jakin batzuetan baizik.

Gainera, ez dugu ahantzi behar gu euskaraz hau edo hura egiten hasten garenerako, erdaraz badirela aspaldi egindako itzulpenak. Era guztietako jendea dago, eta batek esango dizu: «Nik erraxago irakurriko dut hori erdaraz, beraz jarraituko dut irakurtzen erdaraz». Irakaskuntzaren munduan ere gauza bertsua gertatzen da: «euskal literatura» baldin bada irakasgaia, ez gara hasiko ikasleei itzulitako liburuak irakur ditzatela eskatzen. Egia da Literatura Unibertsaleko Bilduma hizkuntza edo literatura irakasleen artean sartzeko saio batzuk egin direla, EIZIEk antolatuak, eta horrek izango zuen, noski, bere eragintxoak, baina itzulitako obraren aurkako aurreiritzi horiek oso indartsuak dira oraindik, nonbait goizegi da gauzak hankaz gora jartzeko.

**Senez:** Zure iritzian, kontu komertzial hutsa da hori, ala oraindik ere euskararen normalkuntza arazo bat?

**XO:** Ziurrenera, batak bestea ekartzen du: euskarara itzulitako literatura bultzatzen ez bada, gutxi salduko da beti, eta saltzen ez bada, bidera ezina izango da bide komertzialean. Jende heldu askok, gaur-gaurkoz, errazago irakurtzen ditu literaturako liburuak erdaraz euskaraz baino; hor, konpetentzia horretan, galduta gaude askotan.

**Senez:** Zer iritzi duzu gaztelaniatik euskarara egindako itzulpenez, Literatura Unibertsaleko Bildumaren barruan nahiz kanpoan?

**XO:** Halako itzulpenetan, arestian aipatzen nituen arazoak areagotu egiten dira, noski: erosle potentzialen % 90 gai da liburua jatorrizko bertsiotan irakurtzeko. Oso gutxi izango dira jatorrizkoa irakurtzeko gauza izanda, euskaraz irakurri nahiago izango dutenak. Iparraldean biziko balira beste 200.000 euskaldun irakurle, gauzak oso bestela joango ziren, baina ez da hala. Egindako saioak, saio diren heinean, ongi daude, baina irakurlearen ikuspegitik ez dute irtenbiderik. Guk, Igelan, izan genituen hasierahasieran halako eskaintzak, Ernesto Sábatoren *El túnel*, edo Miguel Delibes-en *El camino* argitaratzeko, itzulpenak eginak zeuden, baina gu behintzat ez ginen ausartu argitaratzera. Beharbada gure ideia oker eta faltsu bat da, baina ez genion ikusten horri irtenbide handirik. Literatura Unibertsaleko Bildumaren barruan, egoera oso bestelakoa da, hor leku egoki eta logikoa baitute, esate baterako, Borges-en ipuinek eta abarrek.

**Senez:** Euskaratik gaztelaniara eta beste hizkuntza batzuetara dezente hasi dira itzulpenak egiten azken lauzpabost urteotan. Eusko Jaur-laritzak badu programa indartsu bat (diruaren aldetik, behintzat) abiarazteko asmorik, euskarazko literatur obrak erdaretara itzultzeko. Bestalde, idazle ezagun askoren lanak gaztelaniatik abiatuta itzuli izan dira beste makina bat hizkuntzatarara, euskaratik zuzenean egiteko ahalegin apurrik jorratu gabe. Azkenik, bada, Euskal Herrian bertan, euskal idazleak erdaraz irakurritako ezagutu duen irakurle mordoxka bat. Zer diozu horretaz, politika argiago edo finkoagorik antolatu behar litzateke?

**XO:** Bai, iruditzen zait bide hori oso osasungarria dela. Hor ikusiko dute euskal idazleek hemendik kanpo zer egin dezaketen. Jakina, honetan ere gauzak kontuz egin

behar dira, batez ere *erdara* hori lehendabizi eta beti gaztelania izaten baita. Horrek badu arriskurik, esate baterako beste hizkuntzeta-rako itzulpen guztiak gaztelaniazkotik, eta ez euskarazkotik, abiatuta egitekoa. Hori bezala, askotan gertatzen da jende euskaldunak gaztelaniazko bertsiotik ezagutzen dituela euskal idazleak... Hala ere, uste dut egin beharrekoa dela, euskal idazleen ikuspegitik, atera beharra daukate, ahalik eta plaza zabalenera jo behar dute.

**Senez:** Antzerkirako itzulpenean baduzu esperientziaren bat, Sartre-ren Nekrassov itzulia duzu. Zer moduko esperientzia izan zen?

**XO:** Esperientzia gazi-gozoa, egia esan. Egin ditudan itzulpen guztietan huraxe izan zen gero taula baten gainean eta zuzenean entzutekoa. Enkarguzko lana izan zen, eta nik pentsatua nuen nire itzulpena egin eta gero, aktoreekin eta zuzendariarekin eztabaidatu behar zela testua, itzultitakoa idatzitik esateko modura pasatzerakoan egokitzapen bat behar baitzuen, zalantzarik gabe. Zoritarrez, egokitzapen hori ez zen inoiz egin, eta gelditu zen gutxi gorabehera nik egin nuen bezala. Uste dut *Argia*-n atera zela gero kritika bat, hango esaldi batzuk ez zirela *esateko* egokiak, nahiz eta itzulpena txukun samarra izan. Nik hasieratik esan nion zuzendariari testua bi urratsetan landu behar zela, lehena itzulpena, bigarrena egokitzapena, baina presaka prestatu beharreko obra zen, eta «oso ondo zegok» batekin joan zen zuzen-zuzenean taula gainera. Pentsatzekoa da gaur egun telebistako programetan edo bikoizketan ari direnek hobeto landuko dutela egokitzapenaren urrats hori, noski. Iruditzen zait horretan franko aurreratu dela, teknikaren aldetik behintzat; beste kontu bat

da nolako filmak ematen diren euskaraz telebistan...

**Senez:** Orain dela hamar urte, Donostiako udako unibertsitatean, itzulpengintzaren etorkizunari buruzko mahai inguru batean (Senez 14.enean argitaratu zen, ikus Xabier Olarra, «Euskal itzulpengintzaren etorkizuna») hauxe esan zenuen: «Neretzat, etorkizunari begira gauzarik interesgarriena edo esperantzarriena, momentuz, hori da, alegia, inork bultzatu gabe izan dela jende mordoska bat, esango nuke nik, bere kasara orain dela urte batzuk hasi zena lan horiek prestatzen eta, nolabait, bere burua trebatzen gero eta lan haundiagotarako». Euskal itzultzaileek bide luzea egin dute hamar urteotan, ikasi ere asko ikasiko zuten ziurrenik, baina etorri al da zuk aipatzen zenuen etorkizun hori? Iritsi al dira lan handiago horiek?

**XO:** Orduan, Literatura Unibertsaleko Bilduma hasi berria zen, guk Igelan geure saiotxoak eginak genituen, ikusten zen han eta hemen bazebilela itzultzaile multzo bat, ziurrenik Martuteneko Itzultzaile Eskolaren epelera sortutakoa... Nik behintzat argi ikusten nuen bazela garai hartan giro egoki bat, aukerak eta baliabideak emanez gero, modu antolatu samarrean eginez gero, itzulpen proiektu sendo bati heltzeko. Hamar urte geroago, uste dut esan genezakeela etorkizun hori eta lan handiago horietako batzuk behintzat iritsi direla.

Egoera orain dela hamar urte baino hobea ote da? Lana gero eta serioago egiten dela ez dago zalantzarik, baliabide hobeekin gainera. Nik, hastapeneko itzulpenetan, jatorrizkoan ez banuen zer edo zer argi ulertzen, baten bat bilatu behar nuen hari galdetzeko; gaur egun, gauzarik zail edo ezkutukoena,

jatorrizko ingelesdun bati galdetu eta hark ez dakiena ere, Interneten dago, ziur.

Baliabideez ari garela, uste dut aipatu behar dela Juan Garziaren *Joskera lantegi* bezalako oinarritzko lana. Itzulpen teknika-ren alderdian, eta testu idazketaren alderdian, orain dela hamar urte hasi ginenean baino egoera hobean gaude, eta franko ari garela aurreratzen eguneroko lanean.

**Senez:** Beraz, zuk ere zeure lanetan ikusi duzu itzulpen teknikaren esparruan aurrerakuntza hori? Esan duzu modu autodidaktan hasi zirela; elkarren ondoan denok ikasi dugu, bidean aurrera egin dugu... Igelak oraintsu atera berri du Karteroak beti deitzen du bi aldiz liburua-ren bigarren edizioa, zerorrek zuzendua. Zuzenketak asko izango ziren ezinbestekoak, euskararen korpusa garatua den neurriaren arabera, baina bestelako zuzenketak egin dituzu?

**XO:** Goitik hasi eta beheraino aldatu dut liburua. Esate baterako, orduan niretzat ingelesezko *he* eta *she* biak *bera* ziren, ez nion horri beste irtenbiderik ematen, irakurleari uzten nion zama hori, «zuk asma ezazu nor ari den!». Gaur egun, ez daiteke halakorik egin, beste baliabide batzuk erabilia konpondu behar da. Hori bezala, beste mila gauza, esaldiaren joskera kanonikoa batez ere, prosa oso pisua gertatzen baitzen. Horretan franko aurreratu dugu, nik bezala literatur itzulpengintzan ari diren itzulzaileek ere. Ni orain dela hogeitau urte egiten nituen itzulpenak irakurtzen hasten naizenean, ia-ia beste aldera begira jartzen naiz, «nola idatziko ote nuen hau?», baina egia da orduan gure idazketa estiloa horixe zela.

**Senez:** Baita ere, mahai inguru hartan esan zenuen, herri honetako kultur arduradunek

itzulpen politika zentzuzko bat antolatu eta mamitzeko jarri izan dituzten bitarteko urriak direla eta: «nere ustez hor dago gaurko itzulzaileen etsipenaren-edo parte bat. Oraindik ez dut uste gertatu denik, baina hemendik urte batzuetara gauza orain bezalatsu baldin bada-gu eta bakoitza bere ahalegina ahal duen bezala egiten ari baldin bada, logikoa izango da beheraldiren bat izatea». Iritsi al da beheraldirik? Ala bitarteko egokiagoak ipintzeko ahalegin bat izan da azken hamar urte hauetan?

**XO:** Orain dela hamar urte, mahai inguru hura egin zenean esan nuen ez zela inolako perspektiba garbirik ikusten inor literatur itzulpengintzan modu profesionalean bizitzeko, eta hamar urte geroago uste dut gauzak berdin-berdin daudela, zoritxarrez. Ez dut nik bakarrik esaten, Juan Garzia ere iritzi horretakoa azaldu zen ordain dela sei bat hila-bete egin zioten elkarrizketa batean. Literatur itzulzaile profesionalik ezin daiteke izan gaur-gaurkoz Euskal Herrian, halako lan batek eskatzen duen dedikazioa ez baitago ordaintzeko modurik.

Beheraldirik ez dut uste iritsi zaigunik oraingoz, baina ziur aski erreziklatze bat gertatzen da: literatur itzulpengintzan urte sail batean ari izandako itzulzaileek utzi egiten dute lana, edo beste lanetara doaz, akiturik edo irtenbiderik ikusten ez diotelako, eta indar berriak sartzen dira literatur itzulpengintzara, sekulako grinaz jantzirik, esate baterako Fernando Rey edo Pello Lizarralde. Hor indar mota asko dira, baina erreziklatze hori gertatzen dela zalantza gabekoa iruditzen zait.

Ez dut gehiegi ezagutzen EHUko Itzulpengintza Lizentziatura, beraz ez naiz ausartuko esaten zer-nolako eragina izan dezakeen datorren urtean, lehendabiziko euskal itzulzaile tituludunen belaunaldia kaleratzen

denean. Ikusi beharko da, baina iruditzen zait izan beharko lukeela eragin on bat, guk modu autodidaktan ikasi behar izan dugun guztia, haiek ongi xehatua eta ahoko zuloan jasoa izango baitute.

**Senez:** Itzulpengintzari lotutako esperientziaren bat izan zenuen Tarazonako Itzultzaile Etxean, oso oker ez bagaude Santutegia-ren zuzenketak egiteko. Zer iritzi duzu halako erakundeez? Euskal Herrian halako zerbait sortu beharra ikusten duzu?

**XO:** Halako lekuak egokiak dira itzulpen lan bat bukatzeko; ni bitan izan naiz Tarazonan, eta bietan lan bat amaitzeko, *Santutegia* eta *Gatsby handia*. Halako leku lasai eta ongi prestatu bat izatea oso ongi dago, eta aberasgarria da beti itzultzailearentzat. Euskal Herriari buruz, iruditzen zait kan-

poko itzultzaileentzat izango litzatekeela batez ere ona, euskaratik kanpoko hizkuntzetara ari diren itzultzaileentzat. Betiere, halako itzultzaile etxe bat itzultzailearen prestakuntza hobetzeko tresna lagungarria dela iruditzen zait. Badira bestelakoak, noski, behin edo beste Bernardo Atxagak proposatu zuen hura bezala: itzultzaileari beka bat ematea, joan dadin urtebete halako herrialde batera, eta bekaren truke handik obra bat euskaratuta ekartzea. Kanpoko hizkuntza ikaste aldera, halako formula bat oso egokia izan daiteke itzultzailearentzat. Tresna asko egon daitezke itzultzaileen gaitasun profesionala hobetzen laguntzeko, baina inork ez baditu bideratu eta antolatzen, alferrik dira noski. Iruditzen zait gogoz dabilen itzultzaileari halako bideak zabaldu eta erraztu behar zaizkiola.

#### XABIER OLARRAK ITZULITAKO LANAK

- Sacks, Oliver (2003) *Antropologo bat Marten*. Donostia, EHU, ZIO
- Cain, James M. (2003) *Postariak bi aldiz deitzen du beti*. Iruñea, Igela
- Cain, James M. (2002) *Iruzurgilea*. Iruñea, Igela
- Márai, Sándor (2002) *Azken hitzordua*. Iruñea, Igela
- Bierce, Ambrose (2000) *Deabruaren Hiztegia*. Euba, Ibaizabal
- Capote, Truman (2000) *Kameleoientzako musika*. Iruñea, Igela
- Ford, Ford Madox (1999) *Historiarik goibelena*. Iruñea, Igela
- Hemingway, Ernest (1998) *Francis Macomber eta beste...* Iruñea, Igela
- Hammett, Dashiell (1997) *Maltako belatza*. Iruñea, Igela
- Hammett, Dashiell (1996) *Uzta gorria*. Iruñea, Igela
- Stevenson, Robert L. (1994) *Ballantraeko premua*. Iruñea, Igela
- Capote, Truman (1993) *Odol hotzean*. Iruñea, Igela
- London, Jack (1992) *Midasen kuttunak*. Iruñea, Igela
- Cain, James M. (1991) *Galbidea*. Iruñea, Igela

- Chandler, Raymond (1991) *Ez adiorik*. Iruñea, Igela  
Capote, Truman (1990) *Eskuz landutako hilketzak*. Iruñea, Igela  
Faulkner, William (1990) *Santutegia*. Donostia, Elkar  
Fitzgerald, Francis Scott (1990) *Gatsby handia*. Iruñea, Igela  
Conan Doyle, Arthur (1989) *Zirriborro eskarlata*. Iruñea, Igela  
McCoy, Horace (1989) *Zaldia akatzen ditugu ba...* Iruñea, Igela  
Sartre, Jean Paul (1987) *Nekrassov*. Donostia, Antzerti  
Thompson, Jim (1986) *1280 arima*. Donostia, Elkar  
Cain, James M. (1983) *Karteroak beti deitzen du bi aldiz*. Donostia, Elkar

